

## EDITORIALA

Murrizketak 'euskaletan' erara'

Urriaren 14an Finantzen Euskal Kontseilua bildu zen. Bi eginkizun zituen: lehena, EAEko administrazioek (Jaurlaritza, Aldundiak eta Udalak) aurten izango dituzten diru-sarrerak eguneratzea. Bada, eguneratzeak dioenez ogasunek aurreikusi zutena baino 473 milioi euro gutxiago bilduko dute. 473 milioi diru asko da.

Horrekin ia-ia Diru-sarrerak bermatzeko Errenta (DBE), Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak (GLL) eta Etxebizitzako Prestazio Osagarria (EPO) guztia ordaintzea posible litzateke. Halere, berehala hasi dira hitzak manipulatzeko. Horretarako, hiru Diputatu nagusiek eta Ogasun sailburuak, behin eta berriz esaten dute ez dela murrizketarik izango, eta EITBk estrategia honetan laguntza ematen die. Oraingoan ere agerian geratu da lasai asko itxuraldatzen dutela errealtatea.

Egoera honen aurrean, badira bereziki aipagarriak iruditzen zaizkigun bi gauza. Batetik, finantzen Euskal Kontseiluko kideek baztertu egin dute diru-bilketa handitzea iruzur fiskalaren jazarpena eginez edota zergak aberats, enpresa eta kapitalei gehituaz. Diru-bilketa estimatutakoa baino txikiagoa da. Hau ikusirik, helburua benetan balitz kalitatezko zerbitzu publikoak edota gizarte-prestazio egokiak izatea, ahalegin guztiak egin beharko litzukete diru-bilketa hobetze aldera. Euren esku dago, baina ez dute nahi. Beren lagunek, errenta altuak dituztenek eta enpresariak, ez dute zerga gehiago ordaindu nahi. Honek adierazten du bat datozela egungo zerga-politikari buruz (europar batez besteko mailara iristeko ia 6.000 milioi euro gehiago bildu beharko litzateke), horren ondorioa izan arren osasun edota hezkuntza gas-tua Europako urrienetakoa dela.

Bigarrenik, aurten ere eztabaida politikotik at geratu da 2017ko aurrekontuak ia itxita daudela. Barregarria da hau gertatu den egun berean entzutea oposizioak alderdiek aurrekontuen inguruko tratua eskaini dituztela. Nola adosten da dagoeneko erabakita dagoen zerbait? Aurrez ontzat emanda; ez dago beste aukerarik. Finantzen Euskal Kontseiluko jendea gustura dago; oposizioak adostasuna nahi duela errepikatzen badu, ez dio zertan beldurrik izan.

**Un millar de delegados y delegadas participaron el 14 de octubre en Gasteiz en la jornada preparatoria de la negociación colectiva 2106-2017**

## ¡LUCHAD, LUCHAD, LUCHAD!

Bajo el lema *El neoliberalismo vasco prefiere los convenios españoles. Nuestros convenios, aquí*, la habitual jornada preparatoria de la negociación colectiva que ELA celebra en otoño –este año el 14 de octubre en Gasteiz– se convirtió en un monográfico en defensa de nuestros ámbitos de negociación frente a la estatalización, sin olvidar el tremendo ataque que supone el acuerdo firmado entre Gobierno Vasco, patronal, UGT y CCOO para impulsar los convenios en minoría. Sin embargo, los verdaderos y verdaderas protagonistas fueron las y los trabajadores de empresas en huelga: Sigma Brakes, TMB, Residencias Bizkaia, UTEs Mantenimiento de Carreteras de Gipuzkoa, Kaiku Km0, jardineros de Zamudio o Ingemar, que acercaron sus luchas y experiencias a las y los presentes.

Miriam, trabajadora de **Sigma Brakes**, de Tudela, explicó la ejemplar lucha que mantuvieron antes del verano en defensa de un convenio digno. Una lucha que les dejó un sabor agridulce, tras la deslealtad de la UGT, pero que les convenció de que es el único camino hacia la dignificación laboral.

June, trabajadora de las UTEs de **Mantenimiento de Carreteras de Gipuzkoa**, con más de 7 meses de huelga a sus espaldas, criticó el papel que está jugando la Diputación de Gipuzkoa tirando los pliegos a la baja y condenando a la precariedad a los trabajadores/as de las subcontratas públicas, para después destacar la importancia de la organización y de la Caja de Resistencia para poder aguantar las huelgas.

Aitor, de **TMB**, exultante tras el acuerdo logrado tras seis meses de huelga, aseguró que las condiciones no se mejoran sin un sindicato fuerte, con medios y organización, al tiempo que, tras criticar el papel jugado por la Diputación de Bizkaia durante todo el conflicto, aseguró que “la gestión se puede subcontratar, pero la responsabilidad, no. Yo os digo: luchad, luchad, luchad.”

Soraya, de las **Residencias de Bizkaia**, se declaró orgullosa de ser delegada de ELA, “el único sindicato que existe” y afirmó que se mantienen fuertes en la huelga. “Desde que se inició el conflicto hemos subido en representación, en afiliación y en centros con la caja de resistencia reforzada”. Asimismo, reivindicó que la Diputación de Bizkaia se implique en el convenio y deje de criminalizar a las trabajadoras en huelga.

### NOS QUIEREN EN PRECARIO

El responsable de negociación colectiva, **Joseba Villarreal**, criticó que los gobiernos llevan años siendo subcontratas de la patronal. “Aunque tenemos muchos enfrente el objetivo no



es ELA, sino las condiciones laborales y de vida de la clase trabajadora y el conjunto de la ciudadanía. La estatalización de los convenios y el acuerdo firmado en la mesa de diálogo social de la CAPV persiguen un sociedad más precaria”.

### PELIGROSOS TRATADOS COMERCIALES

Laura Gonzalez de Txabarri, responsable del Área Internacional, animó a participar en las movilizaciones convocadas el 5 de noviembre contra el TTIP y el CETA. “El trabajo de sensibilización social que hemos realizado ha conseguido que sea factible parar el TTIP o que no se ratifique el CETA”.

### SINDICATO INDISCIPLINADO

Adolfo Muñoz Txiki, secretario general de ELA, puso el punto final a las intervenciones afirmando que “hacéis el trabajo más difícil. Como decía el mandamiento, creced y multiplicaos. Sin los miles de delegados y delegadas que tenemos en las empresas y sin nuestra militancia sindical no hay sindicato. Organización, organización, organización. Es la clave”.

Nahia Fernández, responsable de Pymes en Eskumaldea, puso el broche final interpretando *Izarren hautsa*, de Mikel Laboa.

Tras el acto una manifestación recorrió las principales calles de Gasteiz, hasta acabar frente al Parlamento Vasco, “para exigir a los parlamentarios/as que defiendan nuestros ámbitos de negociación”.

**ELA gana la primera sentencia de la CAPV que iguala las indemnizaciones para fijos y temporales**

## “TIENES LOS MISMOS DERECHOS”

El 18 de octubre el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dictó la primera sentencia que aclara cuál va a ser la interpretación de este tribunal respecto a las recientes sentencias del Tribunal de Justicia Europeo en el tema indemnizatorio, adoptando la interpretación más favorable para los intereses de la clase trabajadora. De este modo,

establece una indemnización de 20 días por año trabajado para una empleada de la empresa BIOEFF, cuyo caso ha llevado ELA.

El máximo órgano judicial de la CAPV hace suya la tesis de los tribunales europeos estimando que no puede existir discriminación en la indemnización que tienen que

cobrar los trabajadores y trabajadoras al finalizar su relación laboral por el mero hecho de ser fijos o temporales. ELA valora muy positivamente esta sentencia y seguirá defendiendo ante los tribunales la aplicación de las sentencias europeas, tanto en el tema indemnizatorio como en el tema de la contratación fraudulenta.

**1.200  
EUROTIK  
GORA**



Adolfo Muñoz Txiki-ren parte-hartzea. Gasteiz, 2016ko urriak 14.

## NOLAKO SINDIKALISMOA NAHI DUGU?



**Sindikalismo** otzana, botereak bere politika antisozialei babesa emateko diruz lagundutakoa, ala prekaritateari eta neoliberalismoari aurre egiten diona eta bere afiliatuek finantzatzeko dutena?

**Eusko Jaurlaritzak** lehen ereduia nahiago du. 2014ko irailean eman zigun agiri batean esaten zen sindikalismoak zein eginkizun izan behar zuen. Gobernua bere esku uzten zuen sindikatuen ekintza-esparrua *mugatzea*, esanaz ezin zuela egoeratik *kanpo* edo *neutral geratu*. Ausardia handiz, gainera, sindikalismoari "ukatu ezineko ardura" egozten zion: bere gizarte-ereduari men egin behar omen dio. Horretarako prest ez dagoena botereak zigortu eta estigmatizatu egiten du. Oso argigarria litzateke jakitea zein *adituk* lagundu zioten Jaurlaritzari testu hura idazten.

Agiria goitik behera sindikalismoaren autonomiaren aurkako posizio bat da. Ez dute sindikatu errebindikatiborik nahi. Eurentzat soilik Administrazioa, enpresak eta banakako herritarrek daude. Agiri honek, zeinaren aurrean klase politikoa guztiak eta hedabide gehienek paso egin duten, Thatcherren pentsamoldea islatzen du, ultraliberala da, eta ELAK ezin du onartu.

Bestalde, Confesbask patronalak '**enpresa eredu berri**'-rako bere proposamena plazaratu zuen. Bertan langile bakana besterik ez dago; inola ere ez nortasun kolektiboak antolatzen dituzten sindikatuak eta, horrenbestez, kapitalaren eta lanaren arteko erlazio injustuak dakarren errealitate gatazkatuak aurre egiteko moduan izango direnak.

Gobernua eta patronala pentsamolde honetan bat datoz, noiz, eta politika neoliberal latzak ezartzen ari direnean; legea enpresarioei soldatak jaisteko izugarriko boterea ematen ari zaienean; gobernua doikuntza, murrizketa eta erreforma estrukturalak ezartzen ari direnean, zeinek desberdintasun soziala areagotzen duten. Hain zuzen sindikalismoak gizarte eredu honi eman behar dio babesa, haien arabera.

Nazioarteko Mometa Funtsak berak ere, neoliberalismoaren morroi leialak, duela gutxi esan du "merkatuak berak ez du aberastasuna banatzen", eta "krisian hartutako erabakien eraginez soldatak jaisten ari dira eta desberdintasuna areagotzen ari da". Alabaina, ez du esaten erabaki horiek berak agindutakoak zirela. Gure gobernuek ondorio hori atzeratzen dutenerako batek daki gizartearen kohesioa zertan izango den.

### SINDIKALISMOAREN BI AUKERAK

Lehen, nolabaiteko eragina duelako plantak egitea, mahai horietara joanaz. **Elkarrizketa soziala** delako horretatik geratu den gauza bakarra izena da. **Patronalari, gobernuekiko etengabeko harremanetan, nahi duen guztia ematen zaion bitartean, sindikatuak apal-apal jokatzeko ematen dute eta beren portaera zintzoari esker finantzazio publikoa lortzea espero dute.** Hori da **sindikalismo arduratsua**. Agian ez daukate —eta zorrigaitza litzateke— unean uneko gobernuaren babesa bilatzea beste aukerarik. Horixe egiten dute Estatuan, Nafarroan eta orain baita EAEn ere.

Nafarroa dugu sistema ezdeus honen eredu. Behar bada laster ikusiko dugu elkarrizketa soziala zer bihurtuko den finantzazio publikoa kenduz gero. Gobernua berriak funtsezko erabaki bat hartu behar du: UGT, CCOO eta CENekin egiten zituen zorianeko **aldebiko hitzarmen** haiek moztuko bat besterik ez ziren sindikatu horiei eta patronalari iristen zitzaizkion diru publikoaren jarria ez eteteko. ELAK auzitara jo du lege-iruzur hau salatzeko, organizazio horiek lehengoan jarraitzen baitute, helburua finantzatzeko delarik. Auzibidean Nafar Lansareak ukatu egin du honi buruzko informazioa. Duela gutxi Nafarroan UGTren kongresu batean ikusi zenez, sindikatu hauek Gobernuari eskari bakarra egiten diote: diru publikoa eman diezaiela. Gogoratu beharra dago ere ELA izan dela Nafar Lansarean sartu ez den sindikatu bakarra, eta sistema hori amai dadin kanpotik presio eragitea erabaki duena.

Bigarren hautua, noski, askoz zailagoa da. Jendea antolatu behar da eta borrokatzeko prest egon. Autonomia sindikala indartu behar da; ezin zaio egundo uko egin sindikatuak —eta soilik berak— helburuak eta estrategia finkatzeari, enplegu duinak eta eskubide sozialak dituen gizarte justuagoaren alde borroka egiteko.

**ELAren aukera da sindikatuak sendotzea, ikusmolde sozialagoa eta politikoa duelarik.** Ez da beharrezkoa hauteskunde politikoetan parte hartzea iritzirik politikoa izateko eta adierazteko; alderantziz, hori egiteak esan nahi du demokrazia osasuntsua dela. Sindikalismoa politikari buruz isilik egotea onartzea gabezia demokratiko oso larria litzateke. Patronala nahi duen guztiaz mintzatzen da, eta inork ez dio exijitzen hauteskundeetan parte har dezan.

Bada, ELAK egin du bere hautua; baina ez du euren gustokoa, eta hori borrokatzea erabaki dute.

### PREKARITATEA ETA HAU SUFRITZEN DUTENAK ERREALAK DIRA, EDO HAU ERE ELAREN ASMAKIZUNA DA?

ELAK galdera bat egiten du... **ba al da lan-prekaritateari? Guk diogu baietz;** Euskal Herria ez dago prekaritateari salbu, ez EAEn, ezta Nafarroan ere. Gobernua eta patronalak inposatzen dute. Beste galdera bat: Langile prekaritatuak antola al daitezke beren lan-baldintzak hobetzeko? ELAren aburuz, bai, eta euren ustez, berriz, ez. Prekaritatuak bere **zorritxarra** bakardadean pairatu behar du. Prekaritatuak greba egin al dezakete beren enpresek lan-baldintza duinak ukatzen badizkiete? Guk diogu baietz, eta harro gaudela gatazkak gure kuoten solidaritateari esker finantzatzeko; halaxe aipatzen da Arraizko TMBn izan den sei hilabeteko greba amaitu dela berri emateko oharrean. Ez dute grebarik nahi. Beste galdera bat: Prekaritatuak antola al daitezke sindikatu batean prekaritateari aurre egiteko? ELAren ustez, bai; eurek, ordea, **sindikatuak ez dute ikusi ere egin nahi.**

Elkarrizketa Sozialeko Mahai horretan hitz egin al daiteke **fiskalitateaz**? Ez; horretaz patronalak zuzenean ogasunekin hitz egiten du. Azpikontrata publikoetan esplotazioa galarazteko herritar ekimena gauza al daiteke? Ez. "Hau onartuz gero ezinezkoa litzateke beherantz litzatzea", esan ziguten. Eta horretan ari

dira. Nafarroan ELAK bultzatuko herritar ekinbidea Parlamentuan aho batez onartu zen, baina ez osorik: borrokan jarraitu behar da kasu batzutan subrogazioa derrigortzeko, legea betetzen ez duten enpresak zigortzeko eta sektore-hitzarmena aplikatzeko.

Axola al zaie prekaritateari? Egia da hitzaldietan agertzen dela, baina orduan bakarrik. Eusko Jaurlaritzak sostengatzen duten alderdiko buru batek esan zigun "damu" zela Bilboko Arte Ederretako Museoa gatazka konpondu izanaz. Soldatarik handiena zuenak 850 euro irabazten zituen. Izan ere, kezkatuta baitzegoen egoera berean dauden beste langileengan izan dezakeen "dei-efektua" medio. Esan genion pozik egon zitekeela, gu bezala, pertona horiei lan duina izaten laguntzeagatik. Ez zuen halakorik esan, ez duelako hala pentsatzen.

### NON KOKATU BEHAR DA GIZARTE-ELKARRIZKETARAKO MAHAIA?

Mahaietan horretaz guztiaz hitz egiterik ez bada... Zertaz hitz egiten da? **Elkarrizketa sozialeko mahaiaren helburua da politika alternatiboak aldeztu ditugun erakundeon aldarrikapen sindikal eta soziala diziplinatzea.**

Zer eskaintzen diete gobernuek eta ogasunek enpresarioei gizarte globalizatu honetan?

- 1.- Herri bat non lanaren malgutasuna eta prekaritateak estrukturala izan daitekeen.**
- 2.- Herri bat non enpresek beren etekinak puztu eta zerga gutxi edo bat ere ez ordainduko duten.**
- 3.- Beren interesen kontrako sindikatuerik gabeko herri bat.**

**1.- Prekaritatearen aldeko postura estrukturala da, arlo pribatuan zein publikoan.** Krisia hasi zenez, 4,5 bider gehitu da gure herrian kide guztiak lanik gabe dituen familia kopurua. Krisi honetan langile mota berri bat sortu da: langile pobrea, gizarte-laguntzarako behar dituena bere soldata oso eskasarekin. Gobernuaren propaganda ofizialak errealitate hau ahaztu egiten du; ez dute nahi inork hau salatzerik.

**2.- Zerga apalak enpresa eta kapitalentzat.** Gaur du bilera Finantzen Euskal Kontseiluak. Laz aurreikusitako diru-bilketa ez da beteko, eta murrizketa gehiago izango da. Eta 2017an, are gehiago. Confesbask enpresen zergak berririo jaistea eskatzen du. Euskal enpresek, Confesbask kontrako esanagatik, estatukoekin baino zerga gutxiago ordaintzen dute. Ez da ELA hau salatzen duen bakarra; gauza bera dio ere Eusko Legebiltzararen eskariz iruzur fiskalari buruzko txosten bat egin duen katedradun batek: "enpresek gutxi ordaintzen dute, edo ezer ez; zenbat eta handiago, gutxiago ordaintzen dute". Madrilen izan zen enpresen topaketa batean Bizkaiko Diputatu Nagusiak berak ere esan zuen; enpresario batek galdegin zionean Sozietateen Zerga jaitsi eta Ondarearen gaineko Zerga kentzeko, diputatuak erantzun zion kenketa, salbuespen eta hobariekin tasa nominala dela gutxienekoa, eta EAEn enpresek Espainian baino gutxiago







ordaintzen dutela. Ez du axola; Sozietateen Zerga zuloz betetako gazta baten modukoa da, eta ogasunek -patronalaren kontrolpean daudela- ez dute fiskalitate justuagoa sustatzen.

Fiskalitatearen inguruko eztabaida, ezinbestekoa bestelako politikak egin nahi badira, zoritxarrez eztabaida politikotik kanpo geratu da. Hori desastrea da. Nafarroan gauza bera gertatzen da. Ez da txarra Ogasun sailburuak esatea ELAK "badaki zertaz ari den" gai fiskalak plazaratzen duenean. Baina askoz hobe litzateke aintzat hartuko bagintuzte. Zerga-politika aldatu ezean ez dago aldaketa politiko eta sozialik; Nafarroan ere ez. UPNk hogei urte luzez garatu duen zerga-politika ezin da ontzat eman.

**3.- Uztailaren 22an sinatutako akordioaren hirugarren zutabea:** sindikatu erreibindikatiborik gabeko herria. Sindikalismo erreibindikatiboari kendu egin nahi diote euskal langileek eman dioten ordezkaritza. Gobernuak patronalari esaten dio: Aukera ezazu nahi duzun solaskidea, duen ordezkaritza duela ere, eta egizu nahi duzuna! Astakeria hutsa.

Demokrazia sindikalak traba egiten die; gehiengo sindikalak traba egiten die. Akordio hura *putxerazo* bat izan zela salatu dugu. Gobernu demokratiko batek errespetatu egin beharko luke autonomia kolektiboa; haatik, Urkulluren gobernuak patronalari babesa ematen dio solaskiderik otzan eta merkeena hauta dezan, bere interesen mesedetan.

**40 urtean inor ez da ausartu klaseko sindikalismo abertzalearen aurka halakorik egiten.** Alderdien legitimazio demokratikoa -ELAK hau aintzat hartzen du, Lehendakari jauna- ez dago beste legitimitate demokratikoekin kontrajarrita; ez du eskubiderik ematen halako astakeriarik egiteko. Eta legitimitate sindikala da horietako bat; oinarri-oinarrikkoa langileentzat.

Jaurlaritzak honez gero Madrilen ez du negoziazio kolektiborako eskubidea defenditzen (EAJK kontrako jarrera hartu zuen 1994an). Ez da, inola ere, bere lehentasunetako bat. Baina hori gutxi balitz bezala, patronalari babesa ematen dio euskal langile-klasearen erabakia saihesteko.

**Gure kritikei erantzuterakoan Jaurlaritza gezurretan dabil.** Ez omen gaude negoziatio-mahaietan. Zein mahaitan ez gaude? ELAK ordezkaritza duen enpresa eta sektoreko lan-hitzarmen guztietako mahaietan parte hartzen du. Zuek gure ordezkaritza ezdeusa izatea nahi duzuen mahai guztietan gaude.

Gobernuak **negoziazioa blokeatzea** leporatzen digu. Hori ez da egia. Blokeatzen duenak onura ateratzen dio blokeoari, eta guk ez dugu ezer irabazten. Blokeatzen ari denak hitzez hitz esan du erreformen ostean ez duela "negoziatu beharrik". Blokeatzen ari denak badaki mahaietan jokabide pasiboa badu euskal hitzarmena bertan behera geratuko dela eta horren ordez askoz okerragoa sartuko dela indarrean, hitzarmenik badago. Blokeatzen ari da soldatak hobetu nahi ez dituen patronala; hitzarmenetan atzerakadak ezarri nahi dituen eta hitzartutako edukietan salbuespenak egiteko alde bakarreko erabakiaren kontrako bermeak ukatzen dituen. ELAK lan-hitzarmen duinak nahi ditu; baina aplikatuko diren hitzarmenak.

Jaurlaritza gezurretan ari da ere esaten duenean euskal hitzarmenak bermatzeko **Lanbidearteko Akordioa** sinatzeari uko egin diogula. Izan ere, Confebask izan baitzen gutxienez birritan akordio hori arbiatu zuena. Patronalak *bake soziala* exijitu zigun. Esan

zigun bere lurralde-erakundeek -SEA, CEBEK eta ADEGI- hitzarmenak blindatzeko Lanbidearteko Akordio huts bat baino zerbait gehiago nahi zutela. Confebask Akordioari buruz Jaurlaritzak 2013ko uztailaren luzatu zuen proposamenari honela erantzun zion: "negoziatio-eremu berrien irekierak, baita aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera galdu izan diren berreskurapenak, ez du inola ere gatazkarik eragingo...". Erdi Aroan honi jauntxoan "lehen gaueko eskubidea" edo *derecho de pernada* esaten zitzaion.

Bitarteko asko dute beren esku, baita komunikabideak ere, errealitatea desitxuratzeko. Gure abantaila da ekintza sindikal bakoitzaren erroan dauden zergati, arazo eta injustiziak azaltzea. Ez gaude burutik eginda. **Egon behar dugun mahaietan gaude; ez ditugu hitzarmenak blokeatzen, eta euskal hitzarmenak babesteko Lanbidearteko Akordio bati uko egin diona Confebask izan da. Bukatu dira gezurrak!**

## EUSKO JAURLARITZAK NOREKIN IRISTEN DITU AKORDIOAK?

Pobretzen gaituen estatalizazioa Espainian bultzatzen ari direnekin. Patronalak hori baliatzen du, baldintza okerragoak sinatzeko xantaia egiteko tresna gisa. CCOOK eta UGTk horrekin ordezkaritza-monopolio moduko bat izan nahi dute; gainera, *kanon sindikala* delakoarekin beren antolakundea finantzatu nahi dute. Denbora kontua da. Ez digute guri zertan negoziatzeko aukera ukatu, baina horixe egiten dute. Zapa teroren erreforma laboralaz baliatzen dira soldaten jaitziera ezartzeko. **Estatalizazioa soldatak jaitziazteko eta gure gizartea pobretzeko estrategia da.**

**CCOOK, UGTk eta patronalak Espainian koherentziaz eta hipokrisiaz jokatzeko dute.** Hego Euskal Herrian diote lurralde eta autonomia mailako sektoreak defenditzen dituztela. Espainian, ordea, eta horixe axola zaie benetan, ez. PP bezain neozentralistak dira. Duela gutxi Auzitegi Nazionalean epaiketa saioa izan da ELAK (europar arauen arabera) salatu zuen Sukaldaritzako Hitzarmen Estatalari buruz; bada, CCOOK, UGTk eta patronalak tribunalari esan zioten hitzarmen estatal hau sinatu denetik ez dugula hitzarmen probintzial zein autonomikorik izateko eskubiderik, hori estatu mailako akordioak galarazten duelako. Auzitegiari azaldu zioten ELAK bazuela estatu mailako sektoreari, enpresa-hitzarmenetara edota eragin mugarikoa akordioetara jotzeko aukera. Horra Eusko Jaurlaritzaren aliatuak!

**Auzi honek badu ere burujabetzarekin zerikusia. Euskal gehiengooi ez digute erabakitze aukerarik ematen;** ezta eremu sindikalean ere. Epaiak dio "lan-hitzarmen estatalean parte hartzeko aukera" izan genduela. Ez dugu hori zalantzan jarri. Kontua da euskal eremuan esaterako %80ko ordezkaritza dutenek berezko esparruan negoziatzerik ba ote duten. Eta gure berezko esparrua Euskal Herria da.

Auzitegi Nazionalak gure argudioak ez ditu aintzat hartu. Hori espero genezakeen. Baina auzibidea ez da amaitu. Prozesu honek luze joko du, eta bururaino eramango dugu, besteak beste 2016an soilik sindikalismo abertzaleak esaten duelako argi eta garbi bizi garen lekuan, Euskal Herrian, nahi dugula negoziatu.

## SINDIKALISMO ERREIBINDIKATIBOA ESTIGMATIZATU

Menpeko izateko prest ez daudenekiko intolerantzia gero eta handiagoa da. Uste dute doikuntzak, murrizketak eta erreformak egiteaz gainera erakunde politiko, sozial eta sindikal guztiak diziplinatze gaitz direla.

EAJren Bizkai Buru Batzarreko buruak duela gutxi esandakoa: "ELAK beldurra eriten du afiliatu berriak bereganatzeko; nahiago dute enpresak muturreraino eraman kuota gehiago lortzekotan, laguntzeko ahalegina egin baino. Horiek kalte egiten digute". Izugarria da. A zer maila eta errespetu falta!

Zer esan behar diegu halakoak botatzen dituztenei? Lehenik, jakinaren gainean ari direla gezurretan, eta bigarrenik, harro gaudela gure helburu eta estrategiak erabakitzerakoan finantzen aldetik inoren menpeko ez izateaz: ez gobernuen, ez enpresen menpeko. Harrotzeko modukoa dela afiliatuak izatea eta libre izatea

nahi dugun aldarria egiteko, inori baimena eskatu gabe. **ELAK** gobernuen ez du harreman klientelarririk izan nahi. Harreman normalizatu izan nahiko genuke eurekin, baina harreman horrek ez du sekula baldintzatuko politika bidegabeki egin beharreko kritika. Zergatik esaten dugu hau? Eusko Jaurlaritzak harreman normala izatekotan gure kritikak amaitzea nahi duela. Hori ez dugu onartuko. ELAK ez du halakorik onartuko.

## PATRONAL, POZARREN

Jendeari galdetuz gero, batez ere langileei: Nahi al duzue gobernuen botere guztia enpresei ematea? Ziur gaude ezetz erantzungo luketela, oreka eta kontrapisu sozialak nahi dituztela. Haatik, gobernuen gero eta botere handiagoa ematen diete enpresei; zenbat eta handiagoak, are gehiago. Patronalak beste inork baino etekin handiagoa lortu du krisi honetatik. Gobernuen krisia tresna gisa erabiltzen dute patronalari botere handiagoa emateko.

EAEn izandako hauteskundeon ondoren enpresarioen buru batek esan zuen "ELAK eta LABek" galdu egin genduela. Oker dabil: guk ez genuen parte hartu. Baina, eurak izan ote dira garaile? Antza, bai, pertsona horrek berak Jaurlaritzari sindikatuekiko jarrera gogoragoa eskatu baitzion: "gauzak bere lekuan jar ditzala". Esan bezala, eurentzat guztia ere gutxiegi da.

## GATAZKA IREKIAK

Kaiku Km 0, Bizkaiko Erresidentziak, Gipuzkoako Errepedeen mantentze lanak, Sondika eta Zamudioko lorazainak, Amurrioko kiroldegia, Lanbide...

**Gatazkek ez dira gure borondatez luzatzen.** Eurek makurrarazi nahi gaituzte. Esaterako Gipuzkoako errepedeetan dagoeneko zazpi hilabetez luzatu da greba. Gure jendea aspaldidanik zain dago, ea noiz erantzungo duten telefonoa, nork eta ustez denekin negoziatu eta hitz egiten duten horiek. Norekin hitz egiten dute? Soilik eurekin ados daudenekin.

**Bizkaiko erresidentziak.** Emakumeen gatazka. Erakundeentzat emakumea Martxoaren 8ko kartela da. Lan-baldintzak negoziatzerakoan langilea zenbaki hutsa da. Baina borrokan ari diren emakume horiekiko dagoenak ikusten du zergatik den gatazka hain bizia: generoko arrazoiak; emakume izateagatik pairatzen duten diskriminazioa. Gatazka honek erakusten du administrazioentzat lehentasuna dela murriztea, eta enpresentzat, berriz, etekinak handitzea. Horrek guztiak talka egiten du langileen duintasunarekin; baina baita tratu goxoa eta hurbiltasuna eskatzen duten adineko pertsonen duintasunarekin ere. Aldundiak bi eratan erantzuten du: Gero eta gutxieneko zerbitzu handiagoak eskatzen dizkio Jaurlaritzari (honek jaramon egiten diolarik), eta duintasunaren kontzeptua bereganatu nahi du. Hau, ordea, propaganda besterik ez da.

Ez zaie prekaritatea inola ere axola. Kezka beste zerbaitek eragiten die: grebak eta pertsona hauei antolatzen eta borrokatzen laguntzen diegun organizazioak. Biekin amaitu nahi dute.

**Sindikatuok ezinbestekoak gara;** areago ezkerrentzat lan mundua eta gizarte-eredua eztabaida politikoan funtsezko osagai ez diren testuinguru honetan.

ELAKo kide izatea luxu bat da; sindikatua zaintzea, berriz, guztion eginkizuna.



**Aitor Garriga, responsable de ELA en TMB Arraiz, destaca que la movilización de la plantilla estos seis meses de huelga ha posibilitado un gran acuerdo**

## “HEMOS ACABADO CON LA PRECARIEDAD”



**Aitor Garriga, en la derecha de la imagen, junto a delegados/as de ELA en TMB Arraiz**

El 11 de octubre la asamblea de trabajadores y trabajadoras ratificó el acuerdo alcanzado con la dirección de la UTE TMB para la firma de un nuevo convenio colectivo. Un acuerdo que supone una gran mejora en las condiciones laborales y acaba con la precariedad que sufría la plantilla.

### -¿Qué lectura haces del acuerdo?

-Muy positiva. Hemos logrado el objetivo que nos planteamos desde el principio: acabar con la precariedad. Las mejoras son evidentes, en salarios –incremento salarial para cuatro años de 4.500 euros lineales, más los IPCs del 2017 y 2018–, pluses –se abonarán pluses por trabajo en sábado, domingo y festivo o jornada –1.672 horas, 56 horas menos–. Además hay otros muchos aspectos positivos: se mejoran las licencias, excedencias voluntarias o tiempo de descan-

so; se regulan las acumulaciones por lactancia o el seguro colectivo por contingencias profesionales; se garantiza el cobro del 95% del salario en caso de enfermedad común; las y los trabajadores eventuales con contrato a tiempo parcial del 27% de la jornada pasan a tener el 75% y sus contratos pasan a ser indefinidos; se limita la flexibilidad a 6 días anuales...

### -No ha sido un camino fácil...

-Han sido seis meses de huelga indefinida. Es mucho tiempo, pero en todo momento hemos tenido lo más importante: una plantilla unida dispuesta a luchar hasta el final por unas condiciones laborales dignas. Esta mejora sustancial en las condiciones de trabajo solo ha sido posible gracias a la determinación del conjunto de la plantilla, a su decisión de organizarse y capacidad de lucha y al apoyo solidario de miles de afiliados y afiliadas de ELA.

Ha sido muy duro, sobre todo por la postura que ha mantenido la Diputación Foral de Bizkaia. La Diputación puso en marcha la planta de Tratamiento Mecánico Biológico de residuos (TMB) en 2013. Lo hizo subcontratando la gestión, con unas condiciones laborales de miseria recogidas en el convenio colectivo estatal de recuperación y reciclado de residuos.

Lo hemos dicho muchas veces: es posible subcontratar un servicio público, está dentro de la ley. Es más, es posible dejar un servicio público en manos de amigos para que hagan dinero a cuenta de la precariedad de los y las trabajadoras. Pero lo que no se puede hacer nunca es subcontratar la responsabilidad de un servicio público subcontratado. Y la responsabilidad de lo que pasa en TMB Arraiz es de la Diputación Foral de Bizkaia, sea quien sea la empresa encargada de gestionar ese servicio.

A lo largo de este medio año de huelga los responsables de la Diputación no se han reunido ni una sola vez con los trabajadores y trabajadoras de su planta, y se han negado a buscar una solución para mejorar sus condiciones y terminar con la precariedad. Es evidente que su actitud ha contribuido a alargar un conflicto con consecuencias para el conjunto de la sociedad bizkaína.

### -¿Como está la plantilla?

-Muy feliz. Y, lo más importante, somos muy conscientes de que la lucha, la organización y la movilización son la única herramienta que tenemos para mejorar nuestras condiciones laborales. Cuando se pone en marcha la planta de TMB nuestro convenio de ámbito estatal recogía salarios cercanos a los 14.000 euros anuales y una jornada de 1.780 horas anuales. Estos tres años hemos tenido dos grandes huelgas, la última la finalizada el 11 de octubre. Pues bien, tras estas dos grandes luchas nuestro salario medio es de 26.000 euros anuales, y nuestra jornada de 1.672 horas. Es decir, gracias a estas dos grandes huelgas ganamos casi el doble y trabajamos 108 horas menos al año. Creo que no está nada mal.

## LABURREAN / BREVES

### ● Ordubeteko lanuztea LOMCE eta Heziberri-ren aplikazioaren aurka

ELA eta STEILAS sindikatuek ordubeteko lanuztea deitu dute urriaren 26rako irakaskuntzan. Deialdiaren helburua honakoa da: Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari eskatzea bertan behera utz ditzatela LOMCE eta honen aplikazio hutsa den Heziberri. Ordubeteko lanuztearekin batera elkarretaratzeak egingo dira ikastetxeen aurrean, eta arratsaldeko 18:00tan manifestazioak deitu dira Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan.

### ● Tres nuevas semanas de huelga en las Residencias de Bizkaia

El 24 de octubre comenzó una nueva serie de movilizaciones en las Residencias de Bizkaia. Tras comprobar que tanto la Diputación como las patrona-

les del sector continúan en el más absoluto inmovilismo, las trabajadoras han decidido realizar tres nuevas semanas de huelga en defensa de un convenio digno que acabe con la precariedad que sufren.

### ● ELA denuncia la política de externalización de la dirección de CAF de Beasain

La dirección de CAF de Beasain anunció el 10 de octubre el cierre de su acería a partir del 1 de enero del 2017. ELA denuncia que esta decisión se sitúa en una estrategia empresarial basada en abaratar costes externalizando trabajo y, por tanto, destruyendo empleo propio y de calidad. Xabi Olaizola, responsable del metal en Oria-Goierri, recuerda que “de las instalaciones que se han ido cerrando en los últimos años en CAF ninguna de ellas se ha vuelto a abrir o a recuperar su producción: Carpintería, Fundición,

Rebarba... Ahora lo pretenden con la Acería, ¿y en el futuro? Puede ser Forja de Ejes, Forja de Ruedas, Mecanizado de Ruedas, y un largo etcetera”.

### ● Huelga en el polideportivo de Amurrio

La plantilla del polideportivo de Amurrio, compuesta por 21 trabajadores/as y que pertenecen a la empresa Kirozler, se encuentra en huelga indefinida desde el 17 de octubre. Exigen un convenio propio y mejoras salariales, tras cinco años de congelación.

La empresa se niega a negociar y el Ayuntamiento de Amurrio no garantiza a través de los pliegos que está elaborando unas condiciones dignas para la plantilla del polideportivo.



**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

**astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao  
Tel. 94 403 77 00  
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

**www.ela.eus**

**Franqueo concertado**  
nº 08/207